

JESUS ETA URLIA

1

Gaur arte esan doguna
hitz eta bertso-jarduna:
beste batzuen alde izan da,
jakizu, laguna.
Sarri da tituluduna,
izen haundi ezaguna;
gaur geure txanda dogu-ta, emon
daigun erantzuna.

2

Gu danok gaituzu kristau,
horrek "santu" esan nahi dau;
bateoaren grazi-indarrak
behin betiko dirau.
Ez da nahiko meza, barau,
askoz ederrago da hau:
Kristok Beragaz bat-egiteko
ni aukeratu nau.

3

Yone, Aitor zein Teresa,
bardin pobre nahiz markesa;
"urlia" ordeztu, bere izena
bakoitzak jar beza.
Ondo da barau ta meza,
ahal dan guztian erreza;
Jesusen graziz santu ez bada,
dana da bapeza.

4

Nunahi etxe-baztarrean
bizimodu kaxkarrean,
aititamamak Jesusen lagun
fede-indarrean.
Sarri otoitz-marmarrean,
bihotzak su ta garrean,
zein maite diran eurak dakie,
biak bakarrean.

5

Hau ez dago talentuan,
ez geure pulamentuan;
dana alkarren pozetan egin
eta kontentuan.
Batzutan sakramentuan,
bestetan eskarmentuan;
zer noiz ta zelan, gordetzen dabe
biak sekretuan.

6

Ene Jesus maitagarri,
emoiguzu zure barri!
Geuk ezin dogu, eta Zeugana
gaizuz erakarri.
Beti gara zure egarri,
Zeu zakiguz asegarri;
Zu ta ni biok bizi gaitezana
emonak alkarri.

7

Zurekin topo eginik,
ez daukat, Jesus, ezinik!
Ez dot izango Zutaz aparte
beste maite-minik.
Nik hau zelan dan jakinik,
-egin behar bada zinik!
ez dala izan, ezta izango
maitale bardinik!

8

Lagun, hau gaur esatean,
ez da izango kaltean,
eskatzen deusut sartu naizula
zurekin katean.
Gure erantzun-eskean
Jesus aspaldi batean:
TOPAKETA on bat egin nahirik,
daukagu atean.